



BILINTXEN MENDA

BERTSO HAMABOSTALDIA

2021eko maiatzaren 2tik 14ra



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Euskara



donostia
kultura

Aurtengo apirilaren 30ean beteko da Indalezio Bizkarrondo Ureña bertsolariaren jaiotzaren 190. urtemuga. *Bilintx* bertsolari erromantiko ezaguna Donostian jaio, bizi eta hil zen. Amodioa eta desamodioa izan zituen kantagai nagusi. Bere nortasunaren eta lanaren defentsa egin zuen bertso gogoangarri honetan:

*Askok diyote kantetan beti
amore-kontu naizela,
nik esaten det arriturikan
motibo gabe daudela.
Zer egin biat baldin zerubak
doaitu banau horrela?
Ez dute ikusten usaia mendak
bere izatez dubela?
Nere biyotzak amoriyua
mendak usaia bezela.*

Bertso horretan oinarrituta jarri diogu izena Bilintxen inguruan ardaztutako bertso hamabostaldi honi: *Bilintxen menda*.

Lau ekitaldik osatuko dituzte aurtengo jardunaldiak.



BILINTXEN MENDA EMANALDIA

HITZALDI MUSIKATUA

Donostiar bertsolari historikoaren bizitza eta pentsamendua aztertuko dituzte **Unai Agirre**, **Eñaut Agirre**, **Maddalen Arzallus** eta **Amets Arzallus** bertsolariek. Horrez gain, Bilintxen hainbat bertso kantatuko dituzte **Joxan Goikoetxea** eta **Imanol Kamio** musikarien laguntzaz.

Antzoki Zaharra

Maiatzak **02. 19:00**

5 €

donostiakultura.eus/sarrerak webgunean eta antzokietako leihatiletan.



ERDARETIK BERTSOTARA

MAHAI-INGURUA

Bilintx erabat donostiarra eta euskalduna zen, baina, gaur egungo hainbat bertsolarik bezala, beste sustrai batzuk ere bazituen. Dionisio Ureña, aitona, Huelvako Ayamonten jaioa zuen, Portugalgo mugan. Erdaretatik plazetarako urratsa egin duten hiru lagunengatik lekukotasunak bilduko ditugu: **Jone Uria**, **Jon Maia** eta **Aitor Servier** bertsolarienak. **Amagoia Mujika** kazetariak gidatuko du saioa.

Okendo K.E.

Maiatzak **06. 19:00**

Gonbidapenak maiatzaren 5etik aurrera

donostiakultura.eus/sarrerak webgunean eta Okendo Kultur Etxean.



GORBATATIK PIERCINGERA

HITZALDIA

Imanol Lazkano dateke bertsolaritzak azken 100 urteotan izan duen bilakaeraren lekukorik behinena. 1936an jaio zen, Txirrita hil zen urtean. Hernaniar bertsolariarekin kantatzera iritsi zen belaunaldi baten kantu-lagun izan zen gaztetan (Basarri, Uztapide, Zepai, Txapel...), eta, tartekoak tarteko, gaur egun elitean dauden gazteak ere plazakide izan zituen azken urteetan. Bertsolaritzak belaunaldiz belaunaldi izan dituen aldaketak izango ditu aztergai bertsolari azpeitiarrak: bertsolarien profil soziala eta profesionala, pentsakera, bertsokera, gaiak, estetika...

Xabier Euzkitze herrikideak egingo du aurkezpena.

Victoria Eugenia Club

Maiatzak **11. 19:00**

Gonbidapenak maiatzaren 10etik aurrera

donostiakultura.eus/sarrerak webgunean eta antzokiko leihatilan.



BERTSO SAIOA

Bertsolariak:

Maialen Lujanbio

Andoni Egaña

Alaia Martin

Beñat Gaztelumendi

Gai jartzailea: **Joxerra Gartzia**

Imanol Larzabal (Lugaritz)

Maiatzak **14. 19:00**

5 €

donostiakultura.eus/sarrerak webgunean eta antzokietako leihatiletan.

Victoria Eugenia Antzokia

Argentina Errepublika, 2.

T. 943 481 818

E. vea_taquilla@donostia.eus

11:30-13:30 / 17:00-20:00

Antzoki Zaharra

Kale Nagusia, 1 bis.

T. 943 481 970

E. az_taquilla@donostia.eus

Astelehenetik ostiralera: 11:30-13:30

Ekitaldi egunetan: 11:30-13:30 / 17:00-20:00

Asteburu eta jaiegunetan itxita

Imanol Larzabal (Lugaritz)

Heriz, 20

T. 943 310 780

E. lugaritzkulturetxea@donostia.eus

Okendo K.E

Nafarroa Hiribidea, 7

T. 943 29 06 72

E. okendokulturetxea@donostia.eus

donostiakultura.eus/sarrerak

